

HIZKUNTZA NEURKETA

SAN FAUSTO JAIK 2024



BAGARA
NOR



AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Metodologia eta neurketaren lagina	3
3. Neurketaren emaitza orokorrak.....	4
3. 1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzak	6
3. 2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzak	8
3. 3 Barrakak	10
4. 2019ko jaiekin konparaketa	10
4.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa	12
4.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa	13
4.3 Barraketako ekintzen konparaketa	15
5. Balorazioa eta ondorio nagusiak	16
6. Datorren urteko jaietarako proposamenak	17
ERANSKINA: Behatutako ekintzen zerrenda	18

Azaleko argazkiak: Anboto komunikabideak

1. Sarrera

Durangoko San Fausto jaietan izan ohi dugun programazioaren hizkuntzak sortutako kezkak eraman zuen Berbaro Elkarte sanfaustoetako ekimenen hizkuntza azterketa egitera. 2019. urtean egin genuen lehenengoz azterketa mota hau. Urte hartan, jaietako ekintzen gehiengoa gazteleraz izan ziren eta kezka sortu zuen horrek euskararen normalizazioaren alde gauden eragile eta herritarron artean.

2022. urtean, behin pandemiaren eragina amaituta eta jaiak egoera normalera itzulita, berriro egin genuen hizkuntza neurketa. Orain dela 2 urteko jaietan euskararen gorakada nabarmena izan zen eta balorazio positiboa egin genuen.

Azken neurketatik 2 urte pasatu diren honetan, berriro egin dugu hizkuntza neurketa. Uste dugu beharrezkoa dela San Fausto jaietan programatzen eta eskaintzen den egitaraua zein hizkuntzatan egin den aztertzen jarraitzea, datuak mahai gainean ipini, eta, aurrera begira, zer hobetu behar den zehaztea.

Azterketa honen helburua datu zehatzak eman eta hurrengo urteei begira jaietan euskarazko eskaintza handitzea eta nagusi bilakatzea da, Durangoko jaiak jai euskaldunak izan daitezen. Uste dugu euskarak merezi duen lekua behar duela Durangon –jaietan batez ere, jendeak momentu atseginak eta lagun-artekoak bizi dituen sasoia delako– eta hizkuntza gutxitua izanik, erabateko lehentasuna behar duela.

Horretarako, datu hauek emateaz gain, Berbaro Elkarte prest dago jaien antolakuntzan aritzen diren eragile, norbanako eta elkarteekin harremana egin eta laguntza emateko.

2. Metodologia eta neurketaren lagina

2024ko San Fausto jaietako bi asteburuetan (urriaren 11tik 20ra) programatu diren ekintza gehienak neurtzen saiatu gara, udaleko egitarau ofizialeko ekimen gehienak behatu ditugu. Programatutako ekintzen % 78a neurtu dugu, hots, 100 ekintza.

Oro har, ekimen jendetsuenak neurtu ditugu, eta guztiei garrantzia bera eman diegu. Parte hartzaile kopurua neurketatik kanpo utzi dugu.

Ekintza baten hizkuntza zehazterako orduan, lau elementu izan ditugu kontuan:

Aurkezpena: Saioak edo ekintzak aurkezpenik izan badu, norbaitek sarrera bat eman badio, hau, zein hizkuntzatan egin duten.

Ekintza: Zein den erabili den hizkuntza ekintzak berak hizkuntzarik izan badu.

Dinamizazioa: Zein hizkuntzatan zuzentzen zaizkien parte hartzaileei dinamizatzaileak edo lanean ari den jendea.

Euskarriak: Idatzizko euskarriak (kartelak, orriak, letreroak...) edo soinu-euskarriak (kuñak, musika...) egon badira, zein hizkuntzatan izan diren.

Ekintzak, oro har, euskaraz, erdaraz edo elebitan izan diren zehaztu dugu, lau elementu horiei erreparatuz, betiere jakinda batzuetan bata eta bestearen arteko mugak nahiko lausoak direla.

Erdaraz izan diren ekintzen baitan gazteleraz eta ingelesez (bi) egin direnak daude.


Guztira 100 ekintza behatu ditugu, ondorengo irizpide hauek kontuan hartuta:

- Hizkuntza duten jarduerak soilik hartu ditugu kontuan.
- Ekintza bera parte hartzekoa izan bada (lehiaketak, jolasak...), ez dugu parte hartzaileen hizkuntza erabilera neurtu, soilik antolatzaile eta dinamizatzaileena.
- Ekintza bat uneoro martxan egon bada, egunean behin egin izan balitz bezala hartu dugu kontuan (barrakak adibidez).
- Puntu morea urriaren 11, 12, 13, 18 eta 19an egon zen, beraz, hau ere 5 ekintza moduan zenbatu dugu.


3. Neurketaren emaitza orokorrak

Aurten neurtutako 100 ekintzak bere osotasunean hartuta, hauek dira hizkuntzari dagokionez sanfaustoetako datuak: 43 ekintza izan dira euskaraz, 33 elebitan eta 24 erdaraz.

Datuak grafikoki adierazita:




Jaietako ekintza horiek arlo desberdinetan sailkatu ditugu, analisia sakonagoa egin ahal izateko. Hemen dago ikusgai 100 ekintza horiek zein motakoak izan diren:




Arlo horietako bakoitza banaka hartuz gero, hauek dira hizkuntzari buruzko datuak:

Musika:




Euskaraz 14 / elebitan 11 / erdaraz 8

Umeentzako ekintzak:




Euskaraz 10 / elebitan 2 / erdaraz 9

Ekitaldiak:




Euskaraz 2 / elebitan 3 / erdaraz 0

Lehiaketak:




Euskaraz 2 / elebitan 5 / erdaraz 1

Antzerkia:



Euskaraz 2 / elebitan 0 / erdaraz 3

Beste batzuk:



Euskaraz 13 / elebitan 12 / erdaraz 3


Ekintza horiek antolatzailearen arabera banatu ditugu, aurreko neurketetan egin dugun moduan: alde batetik Jai Batzordeak eta Durangoko beste elkarte batzuek antolatutakoak, guztiak ere Jai Batzordeak onartuak eta programan sartutakoak; beste alde batetik, Txosna Batzordeak antolatutakoak; eta, azkenik, barrakak.

Hauek dira hizkuntzari dagozkion datuak antolatzailearen arabera:

3.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzak


Guztira Jai Batzordetik edo Jai Batzordearen txapelpean antolatutako 68 ekintza behatu ditugu. Horietatik 29 izan dira euskaraz, 25 elebitan eta 14 erdaraz.

Datuak grafikoki adierazita:




Datu horiek horrela geratzen dira ekintza motaren arabera banatuta:

Musika:




Euskaraz 9 / elebitan 5 / erdaraz 5

Umeentzako ekintzak:




Euskaraz 9 / elebitan 2 / erdaraz 2

Ekitaldiak:




Euskaraz 1 / elebitan 3 / erdaraz 0

Lehiaketak:




Euskaraz 0 / elebitan 5 / erdaraz 1

Antzerkia:



Euskaraz 2 / elebitan 0 / erdaraz 3

Beste batzuk:




Euskaraz 8 / elebitan 10 / erdaraz 3

3.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzak


Txosna Batzordeak antolatutako 25 ekintza hartu ditugu kontuan. Horietatik 14 izan dira euskaraz, 8 elebitan eta 3 erdaraz.

Modu grafiakoan adierazita:




Datu horiek ekintza motaren arabera banatuta:

Musika:



Euskaraz 5 / elebitan 6 / erdaraz 3

Umeentzako ekintzak:



Euskaraz 1 / elebitan 0 / erdaraz 0

Ekitaldiak:




Euskaraz 1 / elebitan 0 / erdaraz 0

Lehiaketak:



Euskaraz 2 / elebitan 0 / erdaraz 0

Beste batzuk:




Euskaraz 5 / elebitan 2 / erdaraz 0

3.3 Barrakak

Barraken neurketa egiteko, egun bakoitzeko ekintza bakar moduan zenbatu dugu. Hori horrela, 7 ekintza moduan hartu ditugu barrakak, eta guztiak erdaraz izan dira.

Modu grafikoan:




4. 2019 eta 2022ko jaietako datuekin konparaketa

Aurtengo jaien emaitzak azaldu ostean, interesgarria deritzogu 2019 eta 2022ko neurketekin konparatzea, aldaketa nabarmenik egon den ikusi eta aldaketa horiek zein norabidetan izan diren ikusteko.


Soilik aldaketa nabarmena edo esanguratsua eduki dutenen datuak ipini ditugu, gainontzean datuak antzera geratu baitira.

2019, 2022 eta 2024ko egitarau osoak konparatuta, ondorengo grafikoan ikusi daiteke aldea:




Musika eta umeen arloan ere konparaketa egin dugu, datuak esanguratsuak direlako:

Musika:




Umeentzako ekintzak:



Ikusten denez, orokorrean elebitan egin diren ekintzek gora egin dute nabarmen 2022koekin alderatuta, %15etik %24ra. Elebitasunaren hazkundera euskara hutsez egiten den eskaintzaren kaltetan izan da, %53tik %43ra jaitsi baita hau. Gaztelerazko eskaintzak %1 egin du gora.


4.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa


Jai Batzordeak edo Jai Batzordearen txapelpean 2019an, 2022an eta 2024an antolatutako ekintzen alderaketa orokorra eginda, horrela geratu dira datuak:



Hemen ere musika eta umeen arloko ekintzen konparaketa egin dugu, horiek direlako esanguratsuenak eta alde nabarmenena dutenak:

Musika:




Umeentzako ekintzak:



Jai Batzordeak egin duen eskaintzan ere elebitasunaren igoera da joera nabarmenena, %21etik %37ra, erdara hutsez egiten den eskaintzan beherakadagatik (%27tik %21era), baina batez ere euskara hutsezko eskaintza jaitsi delako (%52tik %43ra).

Umeei zuzendutako ekintzei dagozkion datuak 2022koen oso antzekoak diren bitartean, musika eskaintza izan da aipatutako aldaketa eragin duena.

4.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa

Kasu honetan, Txosna Batzordeak 2019an, 2022an eta 2024an antolatutako ekintzen alderaketa orokorra eginda, hauek dira datuak:



Musika:**Besteak:**


Aurreko urteetan musika ez beste guztia %100 euskaraz izan ziren eta aurten, umeentzako ekitaldiak eta lehiaketak ere horrela izan dira. Beste alde batetik, aurten ez da Txosna Batzordeak antolatutako antzerkirik egon. “Beste ekintza batzuk”-en dauden ekitaldi kopuruak gora egin du eta aurten elebitan ere egin dira ekimenak eremu honetan.

Datuei dagokienez, nabarmen egin du gora elebitasunak Txosna Batzordeko eskaintzan, Orik %32ra. Elebitasunaren gorakadak euskarazko eskaintzan jaitsiera handia eragin du,

22 puntukoa hain zuzen ere. Erdarazkoa ere jaitsi bada ere, 10 puntukoa izan da jaitsiera erdaraz. Batez ere musikak izan du eragina horretan guztian.

4.3 Barraketako ekintzen konparaketa

Hemen argi ikusten da emaitzetan ez dela ezer aldatu:



Kontuan hartu behar da 2022az geroztik euskarazko abestiren bat entzun daitekeela eta, beste alde batetik, barraketako karteletako batzuk elebitan daudela. Dena den, gazteleraren eta beste erdara batzuen nagusitasuna erabatekoa da gaur egun ere: izan kale-paisaia, musikan edota animazioan. Era berean, 2019an izandako aldaketa txiki horrek ez du pauso gehiago eman orduz geroztik.

5. Balorazioa eta ondorio nagusiak

Emaiza horiek ikusita, Berbaro Elkartetik hau da egiten dugun balorazioa:

- Elebitan egin den eskaintzak gora egin du nabarmen eta, horren arrazoi nagusia, euskarazko ekintzen jaitsiera izan da. Beste hitz batzuetan, euskara hutsezko eskaintzak bera egin du, elebitan egin den eskaintzaren mesedetan. Gainera, gaztelerazko eskaintzak ere %1 egin du gora, euskarazkoak %10eko jaitsiera izan duen bitartean.
- Jai Batzordeak antolatutako ekintzetan gaztelera hutsean diren ekimenek behera egin dute eta, beraz, euskarak presentzia zabaldu du, hau izanik jai hauetako balorazioaren alde gozoenetakoa eta zoriontzekoa da hori. Beste alde batetik, euskara hutsean egin diren ekimenek ere behera egin dute, aurrez aipatutako elebitasunak irabazi baitu lekua.
- Txosna Batzordeak antolatutako ekintzetan ere elebitan egiten den eskaintza izan da nabarmen igo dena. Datuen xehetasunetan sartuta, elebitasun hori musikan eta musikari lotutako kalejiretan gailendu dela ikus daiteke. Beste alde batetik, gainontzeko eskaintza euskara hutsez egin da eta, beste urte batez, sanfaustoak euskalduntzeko ekarpen erraldoia egin du Txosna Batzordeak.
- Umeentzako eskaintzak ere zapore gazi-gozoa uzten du. Batetik 2022ko joera mantendu da eta 2019ko datu txarrak atzean utzi dira. Baina, eskaintza guzti-guztia euskaraz egiten ez denez, eta barraketako eskaintza erdaraz dela kontuan hartuta, oraindik umeek jaiez gozatzen dutenean erdara oso presente dute. Eremu honetan lanean jarraitzea garrantzitsua dela uste dugu, umeentzat den eskaintza guztia euskaraz egin dadin.
- Musikan eskaintzaren erdia baino gehiago euskaraz izatetik, jaitsiera nabarmena egon da, batez ere, elebitasunaren mesedetan.
- Hitz gutxitan, elebitasunak euskararen presentzia espazio gehiagotara zabaldu duela esan daiteke, baina, batik bat gaztelerak irabazi du lekua jai hauetan. Horren aurrean, elebitasuna tentu handiz aztertu behar dela deritzogu, euskarak espazioak irabaz ditzan eta, aldi berean, euskara hutsezko espazioak sortzen jarraitzeko hautua eginez.

6. Datorren urteko jaietarako proposamenak

Hona hemen 2025ko San Fausto jaietara begira bai Jai Batzordeari bai beste eragileei luzatzen dizkiegun proposamenak:

- Udalaren partetik barraketan aurrerapauso batzuk eman badira ere, uste dugu hizkuntzari dagokionez baldintza zehatzak ezarri behar direla barrakak ipini ahal izateko, batez ere musikaren hizkuntzari dagokionez. Beste herri batzuetan egiten den moduan, barraketako musika zein izan behar den Udalak ezartzea oso eraginkorra izango litzateke.
- Umeentzako diren beste ekintza batzuetan, ekintza aurrera eramateko kontratatuko den enpresari euskarazko begiraleak ipini ditzaten exijitzea. Horretarako aukerarik ez badute eta ekintza hori enpresa horrek bakarrik egin ahal badu, horien osagarri izango diren beste begirale euskaldun batzuk kontratatzea. Aurretiaz aipatutako guztiarekin, umeentzat jaiak erabat euskaraz izan daitezela lortu daiteke.
- Bestelako ekimenei dagokienez, ekitaldi publiko eta lehiaketetan elebitasunetik urrundu eta euskarari zentraltasuna ematea. Horrelako aisialdiko ekintzetan euskara bakarrik erabiltzeak lotura positiboa sortu eta hizkuntza pedagogia egin dezake.
- Azkenik, musika eskaintzan erderek hartu duten presentzia arretaz jarraitzekoa dela deritzogu eta euskarazko musika eskaintza nagusi izateko pausoak ematea.

Amaitzeko, uste dugu euskarazko programazioan aurrerapausoak egiten jarraitu behar dela. Euskara hizkuntza gutxitua izanik, euskara lehenetsi eta Durangon jai euskaldunak egin behar dira, behaketetan argi ikusi baitugu euskara hutsez egin diren ekintza gehienetan euskara ulertzen ez zuen jendeak ere ez duela arazorik izan bertan parte hartu eta ondo pasatzeko.

Berbaro Elkartea prest dago jaien antolakuntzan murgiltzen diren batzorde, elkarte eta taldeekin elkarlana egin eta behar duten laguntza emateko.

ERANSKINA: Behatutako ekintzen zerrenda

Hemen daude ikusgai behatu ditugun 100 ekintzak, eta eurretako bakoitza oro har zein hizkuntzatan izan den:

Ekintza	Sailkapena	Antolatzailea	Hizkuntza
BARRAKAK	UMEAK	BARRAKAK	Gazteleraz
Puntu morea	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
Txupinazoa udaletxeko plazan: VANESSA GOIKOETXEA	EKITALDIA	JAI BATZORDEA	Elebitan
Txupinazoa txosnetan	EKITALDIA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua txosnetan: GOZZUE	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Elebitan
Kontzertua txosnetan: AINKE	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua txosnetan: KATU	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua txosnetan: DJ KUKU	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Elebitan
Kontzertua txosnetan: DJ KENE	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Elebitan
SHINOVA Ezkurdin	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
BARRAKAK	UMEAK	BARRAKAK	Gazteleraz
Puntu morea	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
Sukalki txapelketa Landako Gunean	LEHIAKETA	JAI BATZORDEA	Elebitan
Haur marrazki lehiaketa San Fauston	LEHIAKETA	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Gazteleraz
Txikientzako parkea Landako eskolan	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	UMEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
Ipuina ingelesez Ezkurdiko kioskoan	UMEAK	KIDS&US	Ingelesez
Kalejira BOGORODITSIE abesbatzarekin alde zaharretik	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
"Haurreskolari" dantza ikuskizuna Ezkurdin (Tio Teron)	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskeraz
Herri bazkaria San Fauston	BESTEAK	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Elebitan
Gazte bazkaria txosnagunean	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskeraz
MINIANN DJ Landako Gunean	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Elebitan
Gazte jolasak txosnagunean	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Familientzako herri kirolak Ibaizabal parkean	BESTEAK	AUZO ALAI ELKARTEA	Euskaraz
Kuir eztanda poteoa Pinondotik txosnagunera	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Elebitan
Gazte karropoteoa txosnagunetik hasita	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Elebitan
ELEDER magoa Ezkurdin	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
XXXIX. San Fausto zesta punta txapelketa.	LEHIAKETA	DURANGO JAI ALAI ZESTA ESKOLA	Elebitan
Kalejira mariatxiekin San Fauston	BESTEAK	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Gazteleraz
BENETAN BE taldearen "BATETIK BESTERA" kontzertua Benita Uribarrena parkean	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
PURO RELAJO Andra Marin	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
Disko dantza San Fauston	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua txosnetan: LA TXAMA	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Elebitan
Kontzertua txosnetan: TATXERS	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz

Kontzertua txosnetan: MALAKIAS MX3	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
CAIMAN orkestra Madalena auzoan	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
DJ MARKELIN Ezkurdin	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
BARRAKAK	UMEAK	BARRAKAK	Gazteleraz
Puntu morea	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
Errekortariak	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
EIXU artisau azoka Ezkurdin	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz/Elebitan
Paella txapelketa San Fauston	LEHIAKETA	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Elebitan
Umeentzako Goitibera jeitsiera probak Tabira auzoan	UMEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
Poniak eta zaldiak Ibaizabal parkean	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Ume eta familientzako ikuskizuna txosnagunean	UMEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Paella txapelketa txosnagunean	LEHIAKETA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Txalaparta, ohorezko aurrekua eta artopilen banaketa udaletxeko plazan	EKITALDIA	JAI BATZORDEA	Elebitan
DURANGO KANTARI, EGUNDO I taldearekin alde zaharretik	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Elebitan
III.Goitiberen Jeitsiera Tabira auzoan	LEHIAKETA	JAI BATZORDEA	Elebitan
Mañaria erreken jaitsiera Tabiratik	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
"HERENCIA" antzezlan Ibaizabal parkean	ANTZERKIA	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
DANTZARO: PATXI ETA KONPAINIA TALDEA Andra Mariko elizpean	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Bertso poteoa Txosnagunean	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
BORLA taldearen kontzertua	MUSIKA	RUGBY TALDEA	Elebitan
Umeentzako diskodantza San Fauston	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
HAIZE ARROSA Ezkurdin	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Karaokea eta DJ maratoni herrikoia txosnagunean	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Elebitan
Diskodantza San Fauston	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
BARRAKAK	UMEAK	BARRAKAK	Gazteleraz
Durango Irratia 107.8FM: solasaldiak udal ordezkari eta herritarrekin Ezkurdiko kioskoan	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
Txupinazo txikia udaletxe plazan (SAN ANTONIO ikastetxearen eskutik)	EKITALDIA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
DJ BULL Andra Mariko elizpean	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Elebitan
Nagusientzako bazkaria Landako gunean orkestrak girotua	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
Tailerren txokoa Ezkurdin	UMEAK	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
"ERAITSI S.L" antzerkia Otamotzena parkean (GOITIBERA taldearen eskutik)	ANTZERKIA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
GAUR JAIA taldea Andra Mariko elizpean	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
BARRAKAK	UMEAK	BARRAKAK	Gazteleraz
Puntu morea	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
"Finito-infinito" antzerki saioa TROTAMUNDOS ZIRKO taldearen eskutik Ezkurdin	ANTZERKIA	JAI BATZORDEA	Gaztelera
Tortilla txapelketa txosnagunean	LEHIAKETA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Pilota partiduak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan	BESTEAK	DURANGO PELOTAZALE KLUBA	Euskaraz
Durangkoko abesbatzen kontzertua Santa Ana elizan: ASTARLOA OTXOTEA,	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Elebitan

BOGORODITSIE eta IZAR GAZTEA			
Andoni Agirregomezkorta eta Leire Ruizen umore ikuskizuna Andra Mariko elizpean: Monólogos a dos bandas	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
Kontzertua Ezkurdin: NAHIEZ	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua txosnetan: TXOPET	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskara
Kontzertua txosnetan: BELAKO	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Ingelesa
Kontzertua txosnetan: PINPILINPUSSIES	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Elebitan
Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskara
Kontzertua Ezkurdin: ESNE BELTZA	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskara
BARRAKAK	UMEAK	BARRAKAK	Gazteleraz
Puntu morea	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Elebitan
Txikientzako parkea Landako Eskolan	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
XV.Patata tortila txapelketa Landako Gunean	LEHIAKETA	JAI BATZORDEA	Elebitan
LUHARTZ Andra Mariko elizpean	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskara
Elkartasun bazkaria	Besteak	TXOSNA BATZORDEA	Euskara
ZIRKOZAURRE konpainiaren "Harreman" ikuskizuna Ibaizabal parkean	ANTZERKIA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
LUHARTZ Andra Mariko elizpean	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskara
Kontzertua txosnetan: ROLANDO BRUNO	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Gazteleraz
Kontzertua txosnetan: GOXUA'N SALSA	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Gazteleraz
ATLANTIDA SHOW orkestra Ezkurdin	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Gazteleraz
Alkoholemia kontrolerako stand informatiboa txosnagunean	BESTEAK	DMA	Elebitan (gehiago gazteleraz)
BARRAKAK	UMEAK	BARRAKAK	Gazteleraz
Errekortariak	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Txikitxoentzako parkea Landako Eskolan	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Poniak eta zaldiak Tabira parkean	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Arku tirorako gunea Ibaizabal parkean	UMEAK	DURANGOKO ARKULARIAK	Euskaraz
Herri kirolak Ezkurdin	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
"Durango Uria" XXIV. margo lehiaketaren sari banaketa Ezkurdiko erakusketa aretoan	EKITALDIA	DURANGALDEKO ARTISTEN ELKARTEA	Elebitan
"LAS QUE CUENTAN" antzerki saioa San Agustin Kultur Gunean Adinekoen Antzerki Taldearen eskutik	ANTZERKIA	JAI BATZORDEA	Gazteleraz